



Arartekoaren 2015R-2092-14 Ebazpena, 2015eko martxoaren 26koa. Horren bidez, Bilboko Udalari gomendatu zaio herritar bati bere autoa berreskuratu ahal izateko kobratutako tasa itzultzeko. Izan ere, auzitegi batek autoa itzultzeko agindu zuen, ibilgailuen udal gordailuan xedapen judizialean egon ondoren.

Aurrekariak

1. Erakunde honetara jo zuen auto baten jabeak. Hiru hilabete inguru egin zituen aipatu autoak xedapen judizialean, ibilgailuen Bilboko udal gordailuan. Aurkeztu zuen dokumentaziotik ondoriozta zitekeenaren arabera, 2014ko uztailaren 24an, Bilboko Instrukzioko Epaitegi batek bere autoa egoki aparkatuta zegoen tokitik kentzeko agindu zuen, epaitegiaren esku gera zedin, aipatu ibilgailuen gordailuan, hirugarren pertsona baten aurkako zigor prozedura baten baitan.
2. 2014ko urriaren 14an, autoa bere jabeari itzultzeko agindu zion epaitegiak udal gordailuari, eta jabeari ere agindua jaso zuen manamendua helarazi zion. Aipatu instalazioen ardura zuen langileak, ordea, autoa handik eraman ahal izateko kentzeari eta egonaldiari zegokion tasa ordaindu behar zuela esan zion, 1.533 euroko zenbatekoa zena.

Kexagileak adierazi zuenez, berak eragin ez zuen beharrizan baten zerbitzuagatik kobratu nahi zitzaion, berari eskaini ez zitzaion zerbitzu batengatik -egiazki, pairatu egin zuen, denbora horretan zehar ez baitzuen autoa erabiltzerik izan-; hots, epaitegiari eman zitzaion zerbitzua, berarekin zerikusirik ez zuen ikerketa baterako behar izan zuen-eta. Gordailuko langileak erantzun zion kasua hori bazen, mandamendu judiziala aurkeztu behar ziola, autoa kargarik ordaindu gabe itzuli behar zitzaiola berariaz zioena. Hortaz, epaitegira itzuli zen, baina dokumentua moldatzea baztertu zuen horrek. Egoera ikusita, autoa eskatutako zenbatekoa ordainduz hartzea erabaki zuen, berehala udalari eskatzeko asmoz. Bere arrazoibideak, ordea, ez zituzten balioetsi, eta horregatik aurkeztu zion kasua erakunde honi.

3. Arartekoak Bilboko Udalera jo zuen egitateei buruzko informazioa eskatuz, eta horiek baieztatuko balira, ekainaren 19ko gure 9/2009 gomendiodun ebazpena eragin zuen kasu berberaren aurrean egongo ginatkeela azalduz. Bertan, gordailu mota horien izaera juridikoa etengabeko jurisprudentiaren arabera aztertuta, adierazi genuen horrelako kasuetan ibilgailuaren jabea ez dela gordailugilea izaten, epaitegia baizik. Hortik ondorioztatu genuen azken horri zegokiola, izatekotan, ibilgailuaren egonaldiagatiko gastuak eskatzea; eta kostu judizialak zirenez, epaitegiak egotz ziezazkiokela, kasuan kasu, ordaintzera zigortutakoari.



4. Udalak epe barruan erantzun zuen Ondasunen gaineko Zergen eta Katastroaren Sailatalaren buruaren idazki zehatzaren bidez. Bertan, egitateak baieztatu ondoren, funtsean zera adierazi zuen:

- Ibilgailuak bide publikotik kentzeko eta horiek udaleko lokaletan egoteko zerbitzuengatik tasak erregulatzen dituen ordenantza fiskalaren xedapenetan oinarrituta eskatu zela tasa.
- Hala ere, egonaldi gisa aplikatutako tarifyan okerra egon zela, egiazki, horri zegokiona aipatu ordenantzaren 4. ataleko 4. artikuluan aurreikusitakoa baitzen. Horren zenbatekoa kexagileari eskatutakoa baino txikiagoa zen, 836,40 eurokoa. Ibilgailua kentzeagatik tasa gehituta, ordaindu beharreko zenbateko osoa 948,40 eurokoa litzateke. Horregatik guztiagatik, aipatu zenbatekoarengatik likidazio berria igorriko zuela adierazi zigun udalak, eta espediente honen kexagileari kobratutako 1.533 euroko ordainagiria ezeztatuko zuela.
- Autoa itzultzeko agindu duen idazkari judizialaren argibideei heldu diela udal gordailuko arduradunen jarduerak. Horrelakoetan, ez da tasarik kobratzen aipatu aginduak autoa zordunketarik gabe itzultzeko adierazten badu berariaz. Kontrara, aginduak zehaztaper hori jaso ez badu, esku artean dugun kasuan gertatu den bezalaxe, zor den tasa aurretiaz ordaintzeko eskatzen da, arestian aipatutako ordenantza aplikatuz.
- Erakunde honen azalpenari dagokionean, hau da, gordailu judizialek zor diren tasak ibilgailua gordetzeko agindu duen epaitegiari eskatzeari buruz, udalak aipatu ordenantzaren 2. artikulua moldaketa aztertzeko eta sustatzeko konpromisoa hartu du, proposamenari legezko estaldura emateko xedez.
- Azkenik, egokitzat jo du Arartekoaren idazkiak azaldutako ekimena, Justizia Administrazioaren eta eskudun autonomia erakundeen arteko akordioa sustatzeari dagokionez. Akordio horrek aintzat hartu beharko lituzke horrelako egoerak, zerikusia duten administrazio guztiek eremu horretan herritarrei ematen dieten zerbitzua hobetze aldera.

Aurrekariari erreparatuta, erakunde honek beharrezko ikusi du Bilboko Udalari gomendio bat luzatuz amaiaraztea bere esku-hartzea, ondorengo gogoetetan oinarritutakoa:

Gogoetak

1. Kexagileak Bilboko Udalaren aurrean azaldutako kexaren arrazoitik hara, espediente honek agerian utzi du prozesu judizial batean, eta prozesuagatik



beragatik, epaile batek ondasun higiezin bat bahitzeko agintzen duenean, eta horren tamainagatik edo dituen ezaugarri bereziengatik ezin bada epaitegiak xede horretarako duen gordailuan gorde, kanpoko zerbitzu batera jo behar denean sortzen den gastuak eragin dezakeen arazoa.

Ibilgailuen kasuan, bereziki larria da gai hori; izan ere, gure eskudun eremu geografikoan, udalaren titulartasunaren berriazko gordailuetara eramaten baitira. Zentzu horretan, kontuan hartu behar ditugu Justizia Administrazioaren erabiltzaileen eskubideak. Erabiltzaileen betebeharren artean, ibilgailuak entregatzekoa dago, Justizia Administrazioak horien gainean gordailu bat osatzea erabaki badu, bai eta hitzartutako denboran ibilgailua erabiltzeari uko egitea ere; baina ez ibilgailua bide publikotik kentzeak eta aipatu instalazioetan edukitzeak sortzen duen kostua jasatea.

2. Interesdunak zenbatekoa itzultzeko eskatu zuenean, bere autoa berreskuratzeko ordaindu behar izan zuena, hain zuzen ere, ondorengo hitzekin erantzun zion udalak, Segurtasun Arloko zuzendariaren idazkiaren bidez:

"En contestación a su escrito de fecha 15/10/2014 en el que solicita la devolución de las tasas de arrastre y estancia de su vehículo matrícula XXXX en el Depósito Municipal de Zorrozaurre, debemos comunicarle que el vehículo fue retirado por orden de la Ertzaintza a disposición judicial.

Con arreglo a lo dispuesto en el art. 2.2 de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las tasas por servicios de retirada de vehículos de la vía pública y estancia de los mismos en locales municipales, se entenderá que la actividad administrativa o servicio afecta o se refiere al sujeto pasivo cuando haya sido motivada directa o indirectamente por el mismo por razón de que sus actuaciones u omisiones obliguen al Ayuntamiento a realizar de oficio las actividades o a prestar los servicios."

Ordenantza horren 2.2. artikulua apelatzean, udalaren ustez, kexagileari eskatutako tasaren ordainarazpena ahalbidetuko lukeen araudi oinarria identifikatu du udalak. Ildo berean mintzatu da Ondasunen gaineko Zergen eta Katastroaren Udaleko Sailatala; izan ere, goiz eta arrazoituta erantzun baitzion Arartekoak burututako informazio eskaerari. Lankidetzara jarrera hori aitortzeak ez dakar, ordea, gure desadostasuna ez adieraztea, kexagilea aipatutako arauan deskribatutako kasuan dagoelako ideari dagokionean. Gordailu mota horien izaera juridikoa aztertuta, ezin daiteke zuzenbidean bat egin bere jarduerak edo ez-egiteak udala zerbitzua ematera behartu dutela esatean; delako tasa zerbitzu horrengatik kobratu zitzaionean, gainera.

3. Ez da Arartekoari horrelako kasu bat aurkeztu zaion lehen aldia izan. Arartekoak adierazita dauka, etengabeko jurisprudentziarekin bat eginez, kasu horietan



ibilgailuaren jabea ez dela gordailugilea izaten, epaitegia baizik, eta autoa udalaren lokaletan gordetzea prozedurazko gastuen zati dela; eta, hortaz, kostuak ordaintzera zigortutakoaren gain bakarrik egon daitezkeela kostu horiek.

Zigor kodeari dagokion kontua izaki, kexagilearen ibilgailuaren eta horren bahiketa hitzartu den prozeduraren arteko harremanak bat egiten du Prozedura Kriminalaren Legeak 334. artikuluan ezarritako aurreikuspenekin. Horren arabera, lehenik eta behin, delituarekin zerikusia eduki dezaketen eta, besteren artean, errudunaren eskutan dauden armak, tresnak edota edozein motatako gauzak hartzen saiatuko da instrukzio-epailea. Une horretatik aurrera, ondasunak gauza judizialtzat hartuko dira, aipatu lege-gorputzeko 367. bis artikulua terminoetan, eta aplikagarri izango zaie horren 338. artikuluan ezarritakoa:

“338. Sin perjuicio de lo establecido en el Capítulo II bis del presente título, los instrumentos, armas y efectos a que se refiere el art. 334 se recogerán de tal forma que se garantice su integridad y se acordará su retención, conservación o envío al organismo adecuado para su depósito”

Aipatu gordailuaren izaeraren eta sortzen dituen gastuen arteko harremanari dagokionez, aplikagarria da, besteren artean, Auzitegi Nazionaleko 2007ko martxoaren 21eko epaia:

“...Por otro lado en el depósito judicial, el depositante, en cuanto que decide la constitución (art.1759 del CC), es la autoridad judicial y no el titular de los bienes depositados y no existe relación de derecho privado entre la autoridad judicial y el depositario sino una relación de derecho público por lo cual no puede inferirse, como mantiene la resolución recurrida, que son normas civiles “Inter privados” que regulan la relación entre propietario y depositario las que han de discernir la cuestión de gastos e indemnizaciones.”

Era berean, gordailuzainak gordailu judizialean edo bahiketan zalantzarik gabe baldin badauka dagokion dirusarirako eskubidea, dirusari horrek ezin diezaioke heldu ibilgailuak bide publikotik kentzeko administrazio araudiari, Prozedura Zibilaren Legearen 628. artikuluko aurreikuspenei baizik; eta azken lege horrek prozesuaren gastutzat hartzen ditu aipatu gastuak. Prozedura judizial baten eremuan hartutako kautelazko neurri baten aurrean gaudenez, epaia betearazteak emango dio amaiera horri, eta bertan premiatu beharko da ibilgailuaren gordailuzain judizial izendatutakoak eska dezakeen gastuen itzulketa.



Zentzu berean, epaitegiak jabeari bere autoa erabiltzeko debekua ezartzea ez dago Trafikoari buruzko Legearen 71.2. artikuluan jasotako kasuen artean, ibilgailua kentzetik eratorritako gastuak ordaintzea titularrari dagokiola zehazten duenean, eta horiekin koherentzian interpretatu behar da gaiaren inguruan indarrean dagoen udal ordenantza. Irizpide horretatik abiatuko gara, horren 2.2. artikulua erabiltzeko, zerbitzuaren prestazioa eragin duen jarduera edo jarduerarik eza sorrarazi duen pertsona identifikatzeko, hau da, zerga-egitatea eragin duena identifikatzeko. Hortik ondorioztatu dugu inola ere ezin daitekeela izan, kexagilearekin gertatu den bezala, zigortuta ez dagoen eta epaitegi batek, une jakin batean, bere ibilgailua ikertzeko eta ondoren itzultzeko behar izan zuen arrazoiarekin zerikusirik ez duen pertsona.

4. Justizia Administrazioak, ezaugarri jakinak dituzten ondasunak bahitzeko kautelazko neurria agintzeko xedez, instalazio egokiak behar dituztenean, ezin dezake horrek dakarren gastuaren ardura alboratu, arestian aipatutako Auzitegi Gorenaren epaiaren bigarren oinarri juridikoaren ildoan:

“El organismo adecuado para el depósito de los instrumentos, armas y efectos del delito ha de ser, con carácter general, el depósito judicial (...), aunque podría ser igualmente idóneo otro lugar adecuado, en función de la naturaleza de los objetos que deban ser depositados, en todo caso, dependiente o costeado por la Administración.”

Horrekin bat eginez, ez gara esaten ari udalek euren gain hartu behar dituztenik gastu horiek, justiziarekin lankidetzan aritzeko duten betebeharrak orokorrean oinarrituta. Aipatu betebeharraren arabera, epaitegiek gordailuan edukitzeko agindutako ondasunak jaso eta gorde behar dituzte udalek, baina ez dituzte hori betetzeko sortu behar dituzten gastuak beraien gain berariaz hartu behar.

Epaitegiei eta auzitegiei horien jarduera burutzeko bitarteko materialak emateko lana autonomia betearazleari dagokio, azaroaren 6ko 1684/1987 Errege Dekretuaren arabera. Estatuak bitarteko material eta ekonomikoak emateko funtzioa eskualdatzeari buruzkoa da aipatu errege dekretua, Justizia Administrazioaren funtzionamenduari dagokionean. Aipatu dekretuaren eranskinak ezarri du, bere bigarren zenbakian, Autonomia Erkidegoek bere gain hartu behar dituzten funtzioen zerrenda. Horien artean, *la adquisición de inmuebles, mobiliario y enseres para el uso de los órganos judiciales con sede en el País Vasco.*”

Ez dagokio erakunde honi autonomia administrazioak betebeharrak horri aurre egiteko modua zehaztea -higiezinak erostea edo alokatzea, erakunde publiko zein pribatuekiko hitzarmenen bitarteko laguntza, eta abar-. Hala ere, arazoaren garrantzia jarri behar dugu agerian, bai eta orain arte jaso duen



erantzunaren urritasuna ere. Erantzunari aurre egiteko baliabide gabezia, espediente honek erakutsi duenez, gure ustez gaizki egindako azterketa batek eragin du, gordailu judzialaren izaera juridikoari dagokiona. Horren ondorioz, udaletara helarazi da erantzukizuna, edo, kasu honetan gertatu den bezala, herritarrengana.

5. Zalantzan dago udalak autoa kentzeagatik eta gordetzeagatik zor diren tasak kexagileari eskatzeko legezko oinarria. Ez dugu esan nahi agindu judzialarengatik gorde den ibilgailuak ezin dezakeenik tasaren zerga-egiterik eragin; baizik eta ezin daitekeela horren titularrak ordainketa hori egiteko betebeharra duen subjektutzat hartu; gordailugilea ez bada autoaren jabetzat jotzen, epaitegia baizik.

Ibilgailuak kentzeko eta gordetzeko udal zerbitzua kexagilearen autoa kentzeko agindua betetzera behartuta dago egiazki, bai eta gero itzultzera ere, botere publiko guztiek justiziarekin lankidetzan aritzeko duten betebeharrarekin bat eginez. Era berean, herritar horrek hortik eratorritako eskubideen kalteak jasan behar zituen (bere kasuan, autoa hiru hilabetez ezin erabili izatea), baina ez zien, gainera, horrek eragindako gastuei aurre egin behar. Eta kasu horretan ere, epaitegia izan beharko litzateke ordainketa eskatu beharko liokeena, eta ez udala; eta are gutxiago bere autoa berreskuratzeko baldintza gisa jarrita.

Irizpide hori aplikatzeak, bestalde, kasu honetan jasotakoa udalaren auzialdian aplikatuko balitz gertatuko liratekeen egoera ilogikoak gertatzea saihesten du. Pentsa dezagun horrelako kasuetan: prozedura judizial batean, ondasun baten bahiketa agindu da, eta prozedura hori amaiarazi duen epaiak ez du gastuen zigorra horren titularraren aurka jaso, eta ez du aipatu agindua eragin duen egitatearen erantzulerik identifikatu.

Gure ustez, zenbait dira honaino azaldutakotik atera daitezkeen ondorioak:

- Bere lankidetzak eskatu zuen epaitegiari eskatu beharko litzokie udalak autoa gordetzeagatik tasak, eta ez ibilgailuaren titularrari. Horrela ulertzeko ez da zertan ordenantza erregulatzaila moldatu, baizik eta indarrean dagoen araudiaren eta horren jurisprudentziako interpretazioaren arabera aplikatu behar da.
- Itzultzeko aginduaren berriazko adierazpena egoteak, itzulketa eragindakoarentzako gasturik gabe egiteko zentzuan, nahasmenduak egotea saihesten lagunduko luke. Horrelaxe azaldu genion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari, erreklamazio hau eragin duen bezalako egoerak saiheste aldera.
- Nolanahi ere, eta guri dagokigunean, garrantzirik gabekoa da aipatu aginduak horri buruzko aipamenak eduki ala ez eduki izana. Udalak



aginpide judizialaren berriazko agindua jaso zuen, eta bere betebeharra zen agindu hori hitzez hitz betetzea, horren betetzea baldintzatu gabe, hau da, autoaren jabeari ordainketa ezartzeko legezko oinarririk ez zuen tasa ordainarazi gabe.

- Beharrezkoa dirudi Justizia Administrazioaren eta horren funtzionamendurako bitarteko materialak emateko arduraren autonomia zerbitzu lankideen arteko hitzarmena sustatzea. Hitzarmen horretan, espediente honetan islatutako egoerak aztertu beharko lituzkete, eta xede horrekin joko dugu Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailera.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo gomendioa aurkeztu da:

GOMENDIOA

Kexagileari bere autoa agindu judizialaren bidez kentzeagatik eta ibilgailuen udal gordailuan gordetzeagatik eskatutako tasen likidazioa ezeztatu dezazuela, eta xede horretarako ordaindu duen zenbatekoa itzul diezaiozuela.

Hori guztia Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailaren artean egin daitekeen akordioa albo batera utzi gabe, gastuen gaineko zigorrak ez dagoen kasuetan, aginpide judizialak agindu duen gordetzetik eta gordailutik eratorritako gastuak estaltzeko, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duen epaitegi edo auzitegi batek izapidetutako zigor prozedura baten testuinguruan, gauza judizialtzat jo diren ondasun higiezin gainean, ondasunek dituzten ezaugarri bereziengatik, ezin direnean xede horretarako jarritako gordailu judizialekin gorde.